

HERNANIK kronika

2003 urtea
Otsailak 15
Larunbata
Alea: 695
www.hkronika.com

Benito Lertxundi gaur Hernanin, Dobera Euskara Elkartearren 10garren urteurrena ospatzeko

■ Dobera 1993an sortu zen euskera indartzeko eta zenbait ekitaldi egingo dira hamar urteko lana ospatzeko ■ Benito Lertxundi abeslariak disko berria aurkeztuko du gaur, 22:30etan ■ Hotzari aurre egiteko kalefazioa jari dute frontoian.

HAMARGARREN urteurrena ospatzeko Dobera Euskera Elkartea hainbat ekitaldi antolatuko ditu aurten, eta gaur izango da aurrenekoa. Benito Lertxundi kantariak gaur gauean kirolegian emango duen kotzertua izango da. Benitok *Nire Ekieldean* izeneko azken diskoa aurkeztuko du Hernanin. Berakin batera gurean izango dira musiko hernaniarrak edo Hernanirekin harreman estua izan dutenak: Olatz Zugasti, Angel Unzu eta Fernando Ederra.

Orain dela 10 urte sortu zen

Dobera Euskara Elkartea, herrian euskeraren presentzia indartzeko helburuarekin. Gipuzkoako beste Euskera elkarteen bidetik sortua edo sortzeko bidean zeudenengi bideari jarraituz antolatu zuen Dobera herriko euskaltzale talde batek.

Hamar urteotan, Doberak egitasmo eta jarduera ugari jarri ditu martxan, euskera eta euskal kultura suspertzeko, beti ere herritarren laguntza-rekin: batetik, laguntza ekonomikoa, eta bestetik, Doberako baziideek eta Kronikako laguntzaileek ematen dutena,

eta lan taldeetan urte hauetan guztietan borondatzeko lana egin duten eta egiten ari diren herritarrek ematen dutena.

Doberak Kale Nagusian izan du oraintxe arte egoitzaz, Udalak utzia, eta urte honen hasieran estreinatu du lokal berria Larramendi kalean, hori ere Udalak txukundua eta utzitakoa. Lokala Dobera Euskara Elkartearren azken hiru urteotan argitaratzen duen *Hernaniko Kronika* egunkariaren egoitzaren ondoan dago.

Euskera Elkartea aurrera begira antolatuko dituen eki-

taldien inguruan, Doberako ordezkariek adierazi diguteenez, batzuk etxe barrurako antolatuko dira, elkarteko bazkide eta Kronikako laguntzaileei zuzenduak izango baitira: lokal berriaren inaugurazioa, esaterako. Beste batzuk berriz, herritar guztiei eskainiko zaizkie. Batzuk aipatzekotan, ikerketa bekaren inguruan bildutako argazki zaharren erakusketa eta ikerketa bekak eman-dako lanaren argitalpena daude. Doberak aurrerago emango ditu ekitaldi horiei buruzko xehetasunak. □



Victor Goikoetxea arte lan baten ondoan.

VICTOR GOIKOETXEAREN ERAKUSKETA

“Trompe d’oeil aspaldiko dekorazio teknika da, eta gauzak benetan diren bezala pintatzen dira”

VICTOR Goikoetxea pintore hernaniarrak pintura erakusketa jarri du Biterin. Goikoetxearen esanetan, bere helburua da *Trompe d’oeil* pintatzeko teknikaren prozesu osoa esplikatzea. “*Trompe d’oeil*, -dio Goikoetxeak- azken batean, dekorazio teknikariak zaharrenetako da eta esakerak berak adierazten duen bezala, *begiari tranpa* egitea da sekretua. Koadroa begiratu eta sentitza gure aurrean pintatuta dagoena benetan paisaje bat, itsaso, arkitektura bat edo altzaria dela. Sentsazio hori sortzea da teknika horren helburua” dio margolari hernaniarrak. Eta egia esan, Biteriko erakusketa gelara sartze hutsarekin antzematen da Victor Goikoetxeak asmatu due-la sentsazio hori sortzen.

Victor Goikoetxeak Bite-

rin jarritako erakusketa dekorazio teknika horren lan osoa azaltzen du: perspektibaren diseinoa, bozetoa, maketa eta lana bukatuta. Elementu dekoratibo izan litekeen edozer pintatzen du. Pintore hernaniarra Parisen, Florentzian, Bretainen, Barzelonan eta abar aritu da ikasten, eta uste du gogotik lan egitea dela sekretua eta Picassoren hura gogoratu du: “inspirazioa etortzen bada, harrapatu nazala lanean”. Bere burua artisau ikusten du, artista baino gehiago, eta Floridan dauka estudioa, Udalak utzitako lokalean: “Nik egunero nere 9 orduak sartzen ditut, beste edozein langilek bezalaxe” dio.

Goikoetxearen erakusketa otsailaren 27ra arte egongo da Biterin, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. □

■ ERREMONTEA

Altuna II-Etxabe finalean

ALTUNA II eta Etxabek 40-34 irabazi zuten ostegunean Galarreran Ezkurra-Urkoren kontra eta bi bitako txapelketako finala jokatuko dute Imanol-Eizagireren kontra. Partiduko onena Jokin Etxabe izan zen. □

Kataluña eta Hernaniko musikariekin alaituko dituzte kaleak gaur

KATALUÑAKO 40 bat musikari dira gaur Hernani eta Oiartzuna etortzekoak Hernaniko Musika eskolak eta Oiartzungo Herri Musikaren Txokoak antolatuta. Kataluñako herri musika tradicionaleko eskolatik datora Hernanin kalez kale ibiliko dira gaur arratsaldeko 18:30etan. Kataluñako *grallerrak* eta Hernaniko dultzai-neroak ibiliko dira. □

EHIZA

Kontrapasako lizenziak Txantxangorrin daude

KONTRAPASA gaur irekiko da. Lizentzia federatiboa Txantxangorri bidez egin dituztenak elkar-tean bertan dauzkate hartzeko. Hartzera pasa 19:30etatik 20:00etara, egunero. □

ZINEA GAUR

‘Kanchatka’ eta ‘Dragon Hill’ Biterin

BI pelikula botako dituzte gaur Biteri kultur etxeen. Umeentzat *Dragon Hill* 17:00etan eta helduentzat *Kanchatka* 19:30 eta 22:30etan. □

Marrazki bizidunak Ereñotzun

‘KIRIKU eta sorgiña’ pelikula botako dute Ereñotzun gaur 18:30etan. Txirrita ikastetxeen izango da auzo elkarrekin antolatuta. □

Telemar ANTENAK
Antena parabolikoaren instalazioa
Indibidual eta kolektiboa
Teledistribuzioa
Telefonia mugikorra
Kontserbazioa eta mantenimientua
ETXEKO ELEKTROGAILUAK
Telefonia fijo eta mugikorra
CANAL+ SATELITE
CANAL DIGITAL
Kale Nagusia 7
Tel.: 943 33 26 00
Elkano kalea 13
Tel.: 943 55 33 99
943 33 00 60
Movistar

HORBEL jatetxea
Bokatak, pintxoak, raziak, platerak, entsaladak, sandwichak, hanburguesak
Etxeraino eramango dizugu.
Eskatu!
Lizeaga kalea 4
Tel.: 943 33 33 95

Antziola-Motor
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA
Ford
Motorcraft Ford Recambios
Antziola Motor
18 urte Hernanin, zuekin Ford-eko gama guztiaren kin
Modelo guztiak
ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Errredakzioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. Tel: 943-330899. Fax: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.

Berriak elkartea kutxak jarri ditu Angel Olaranek Etiopian egiten duen lanerako dirua biltzeko

ANGEL Olaran misiolari hernaniarra Etiopiako Wukro herrian dago joan den aspaldian, behartsuenei aurrera ateratzen laguntzeko lanean. Hernanin dirua biltzeko kanpaina bat martxan jarria dago, Berriak ostalari eta merkatari elkartea lagunduta. Berriak elkartea dei egin die herritarrei lagunza emateko "txanpon gutxi batzuk emanda lan haundia egin bainiteke Wukron". Dirua biltzeko kutxak Hernaniko hainbat komertzio eta tabernetan daude jarriak. Berriak elkartea gogoratu arazi du segurua dela dirua Etiopiarra iristen dena, Angel Olaranek berak eramatzen baitu pertsonalki. □



Angel Olaran misiolari hernaniarra Wukro herriko gaztekin.



Josone Osoro idazlea Udal Euskardegiko ikasleei hizketan.

KIROLA		ASTEBURUKO PARTIDUAK	
Gorengoa	Tolosa-Hernani	Beazubi	B har16 30
Emak. Liga 1.Erejon	Hernani-Zarautz	Hemeia	B har15 00
Gatz.Nazi.	Hernani-Vasconia	Umieta	Gaur17 45
Gatz.O hor.	Hernani-Etxebarri	Hemeia	B har16 30
Kad.O hor.	Hernani-Hondarribia	Hemeia	B har18 30
Kad.2garr.	M. bhotza-Hernani	M atxox	B har12 30
Haur.O hor	Usurbil-Hernani	Hemeia	Gaur10 30
ERRUGBIA		Zubieto	Gaur18 30
1.L.Nazion.	Gernika-Hernani	Urbieta	B har12 00
Lagunarteko	Hernani-B. Bartzan	Landaie	Gaur16 30
Jub.Euskal	Hernani-A. Iztoko	Landaie	Gaur15 00
Kad.Euskal	Hernani-A. Iztoko	Landaie	Gaur12 00
Infan.G ipuz.	Hernani-A. Iztoko	Landaie	Gaur10 30
Aleb.G ipuz.	Hernani-A. Iztoko	Landaie	Gaur10 30
MAHAI TENISA			
1.L.Nazion.	Hernani-Leku enea	Kiolegia	Gaur16 30
Gipuzkoa	Hernani-Leku enea	Kiolegia	Gaur16 30
XAKA			
Igoera fasea	Zamutza-Hernani	Zarautzen	Gaur16 00
Igoera fasea	Hernani-B. Ebar	Eibarren	Gaur16 00
BOLEIBOLA			
Kadeteak	Lizardi/Langile	Zarautzen	Gaur11 00
WATEPOLOA		Non	Noiz
Euskadiako	Hernani-Santurtzi	Kiolegia	B har13 00
EuskalB	Castelke B. Hernani	Burgos	B har15 30
Galaria - Errremontea			
1) Zalakain - Etxeberria II	Atxik III	Gaztelu	Gaur16 00
2) Ezkuna-Unetabizkaia/A luna II	Ezagine	Gaztelu	Gaur16 00
3) Agimesaobe-A izpuna/B toria A	Lekunberri	Gaztelu	Gaur16 00
4) Sarasua-Urkia/B eriaztua/B adibla		Gaztelu	Gaur16 00
Kronika Txapelketa			
Esk. 2naka	Joséba M. Iker/Sergi	Tibseta	Gaur16 30
Esk. 2naka	Zapi Etxeberria/Sergi	Tibseta	Gaur16 30
Esk. 2naka	Zabal-Gamendia/Pabb. Fernando	Tibseta	Gaur16 00
22 urtez azpiko Txapelketa			
Final 1/4	Mendizábal A. Zagame/Lasa-Zabala	Kiolegia	B har11 00
Final 1/4	M. Azkizan-Lagos/A. Iñaki-Lamata	Kiolegia	B har11 00
EHKO, Gipuzkoako eta Udaberri Txapelketa			
Eskuz	Txapagain/Sarasua San Sebastián	Ondizia	Gaur21 00
Trinketea	Beharzana/Gaskon-A. Izpuna	Iruan	Gaur15 30
Pala m otxa	Gaztelku/Lujanb-Gazala	Andoain	Gaur21 00
Paleta	Txipiro-Lujanb/A. Iztotza	A. Itxianaga	B har15 30
Paleta	Bunitaran-A. Iñizaba/Laga/Ramuntxo	A. Itxianaga	B har15 30
Paleta	Hoz-M. Anchoas/A. Iztotza II	A. Itxianaga	B har15 30
Juben ilak	San Esteban/A. Iñaki-Otegi	B. Erastegi	Gaur21 00
Jub. Trink	Gumutxaga/Ramuntxo	Gaska	Gaur15 45
Jub. Trink	Izaztabanena/Zuntzuza	Gaska	Gaur16 30
Kadeteak	Lagunak/G. Otoegi	B. Arzakain	Gaur11 30
Kadeteak	Lagunak/E. Zetaia-A. Iztotze	B. Arzakain	Gaur11 30
Kadeteak	O. Juelapa/L. B. B. Endi	A. Itxianaga	Gaur15 15
Kadeteak	Fernandez de Goicoetxea/B. Anantes	A. Itxianaga	Gaur16 00
Kad. Trink	Fernandez de Goicoetxea II/A. A. Oregia	Gaska	Gaur15 00
Infantilak	Andazpe/E. Zetaia-G. Iñaki	A. Itxianaga	Gaur16 30
Infantilak		Agirre	Gaur18 00

TOLARE SAGARDOTEGIA
eizmendi

Maixa Eizmendi
Osiñaga Auzoa - Tel. 943 556 405 - Móvil 616 450 380 - HERNANI

oiALUME BILTOKIA.
Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik aurrera.
Bihar igandea:
'Disko-top' diskofesta
OIALUME BIL TOKIA
Oialume auzoa - 943 55 29 38



Isabel Espinaco erdian Fagollagako ikasleak inguruau dituela.

Fagollagako eskolan ibiliek omenaldia egingo diote Isabel Espinaco irakasleari

ISABEL Espinaco Lera irakasleari omenaldia egiteko bazkaria antolatu dute Fagollagako eskola zaharrean ibiliek. Bazkaria martxoaren 16ean izango da eta izen ematea otsailaren 28a baino lehen egin behar da. Antolatzaleek dei egin diete

Fagollagako eskolan ibiliei. Interesatuek deitu 676 83 79 10 (Margarita) edo 943 55 59 41 (Milagros).

Fagollagako eskola 1963tik 1976ra egon zen irekita eta urte batzuetan 57 ikasle ere ibili ziren Isabel Espinacorekin. □

II. URTEURRENA
MIGEL SALABERRIA SALABERRIA
2001eko otsailaren 12an hil zen.
Haren emaztea: Manoli Otxotorena; Seme-alabak: Mikel eta Karmen Mendiola, Joxan eta Ana Ezeiza, Julene eta Josetxo Arana, Bittor eta Amaia Yarza; bilobak: Iurre, Mikel, Julen, Iñaki eta Asier; anai-arrebak: Manuel (+) eta María Luisa, Nicanor eta Estefanía (+), Julita eta Javier (+), Alejandro eta Teresa, Martín eta Silvina, Bittor eta Felipa, María eta Cesareo; izeba: Bittori (+); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak, bihar eskeiniko diogun oroigarri mezara gonbidatzen zaitzegu.
Oroigarri meza, **bihar, otsailak 16**, goizeko 11:00etan, Juan Bataiatzailea parrokian

ZERBITZUAK

TELEFONOAK	FARMAZIAK
Taxiak: 943 550093	EGUNEZ: Gomez Kale Nagusia 14 943 554892
Udalzaingoa: 943 333288	Gauzeak: Oa Usurbil. Poligono 1, 1 943 376076
DYA: 943 464622	
Autobusak: 943 556662	
Anbulatorioa: 943 006666	
Jokalari anonimoak: 943 331103	

IRAGARKI MERKEAK
20 urteko neska jatorrak euskalduna, arratsaldeetan haurrak zaintzeko eskaintzen da. Interesatuek deitu: **635 20 51 73**
Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENAREN konbokatoria. Ezinbestekoak: Diplomatura edo lizenziatura. Ingelesa. ADOZ: 943 44 45 09
AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09
GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoak: Graduatura. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09
BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoak: Graduatura. ADOZ: 943 44 45 09
TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun tituloa lortu ezazu. ADOZ: 943 44 45 09
ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoak: Graduatura. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09
UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdieta rako. Ezinbestekoak: Graduatura. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09
UDAL Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdieta rako. ADOZ: 943 44 45 09
BANKU eta AURREZKI KUTXA Atarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoak: B.U.P. Datozen deialdieta rako. Presta zaitez: ADOZ: 943 44 45 09
Txofor, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: 943 44 45 09

CALARRETA SAN ALAI FRONTOIA
Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak
GAUR 16:00 ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:

- partidua: **Juaristi - Lander / Zalakain - Etxeberria II**
- partidua: **Txapelketa: Altuna I - Eizagirre / Iñigo - Lizaso**
- partidua: **Elizalde - A. Lekunberri / Urretabizkaia - Aizpuru**
- partidua: **Lezea - Urretabizkaia II / Sarasua - Badiola**